

## 5. ANALISI MAKROEKONOMIKOA

MAKROEKONOMIA.  
OINARRIZKO KONTZEPTUAK.  
OREKA MAKROEKONOMIKOA

## MAKROEKONOMIA

- Mikroekonomia
  - *Mikroekonomiak zera ikasten du:* enpresek edo etxeko ekonomia indibidualek euren erabakiak nola hartzen dituzten.

## MAKROEKONOMIA

- Makroekonomia
  - *Makroekonomiak zera ikasten du:* ekonomia modu orokor batean.
  - Bere helburua zera da, etxeko ekonomia, enpresa edo merkatu askoren gainean eragina daukaten aldaketa ekonomikoak azaltzea.

## NAZIOAREN ERRENTA NEURTZEN

- Makroekonomiak honelako galderei ematen die erantzuna:
  - Zergatik da batezbesteko errenta handia herrialde batzuetan eta, ordea, beste batzuetan oso baxua?
  - Zergatik igotzen dira prezioak batzutan oso modu azkarrean eta, ordea, beste garai batzuetan zergatik dira hain egonkorak?
  - Zergatik handitzen dira enplegua eta produkzioa garai batzuetan eta beste batzuetan uzkurto?

## EKONOMIAREN ERRENTA ETA GASTUA

- Ekonomia ondo ala txarto doan ikusteko, ohikoena jendeak eskuratzen duen errentari begiratzea da.

1- taula.- 2020 Europa adierazleak

	EB-28				Euskal AE				Espainia			
	2008	2012	2013	2014	2008	2012	2013	2014	2008	2012	2013	2014
<b>OKUPAZIOA</b>												
Okupazioaren tasa (20 urteik 64ra) (%)												
Guztira	70.3	68.4	68.4	69.2	71.0	66.3	66.6	67.5	68.5	59.6	58.6	59.9
Emakumezkoak	62.8	62.4	62.6	63.5	61.9	61.8	62.2	63.4	58.9	54.6	53.8	54.8
Gizonezkoak	77.8	74.6	74.3	75.0	80.0	70.7	70.9	71.6	77.9	64.6	63.4	65.0
<b>I+G</b>												
I+Gko barne gastu qordina (BPGdaren %) :												
1.85	2.01	2.02	:	1.81	2.06	1.99	:	1.32	1.27	1.24	:	
<b>KLIMA ETA ENERGIA</b>												
Bero legi-efektuko gasen emisioak, oinarri urtea 1990=100												
90.4	82.1	:	:	120.0	101.1	:	:	142.3	122.5	:	:	
Energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumo qordinean (%) :												
10.5	14.3	15.0	:	6.5	7.6	7.5	:	10.8	14.3	15.4	:	
Lehen mailako energia kontsumoa, oinarri urtea 2005=100												
98.7	92.7	91.7	:	102.3	86.3	82.7	:	98.7	89.6	83.6	:	
Energiaren azken kontsumoa, oinarri urtea 2005=100												
96.9	92.9	93.1	:	104.4	93.1	91.6	:	96.8	85.1	83.0	:	
<b>HEZKUNTZA</b>												
Garaiaurreko eskola-uzte tasa (18 urteik 24ra) (%) :												
14.6	12.6	11.9	11.1	13.9	7.8	8.0	7.2	31.7	24.7	23.6	21.9	
12.6	10.8	10.2	9.5	10.9	7.2	7.9	6.6	25.1	20.5	19.8	18.1	
16.6	14.4	13.5	12.7	16.6	8.2	8.1	7.7	38.0	28.9	27.2	25.6	
Goi-mailako hezkuntza maila (30 urteik 34ra) (%) :												
31.2	36.0	37.1	37.9	38.7	44.2	44.2	48.9	41.3	41.5	42.3	42.3	
34.4	40.3	41.4	42.3	47.5	51.8	52.1	58.0	46.5	47.1	47.5	47.8	
28.0	31.8	32.9	33.6	29.6	36.9	36.7	40.7	36.5	36.0	37.1	36.8	
<b>POBREZIA (1)</b>												
Pobreziaren edo bazterketaren arriskuan dagoen biztanleria (Hurrengo hiruen bateratzea) (%) :												
23.8	24.7	24.5	:	17.9	19.9	:	22.7	24.5	27.2	27.3	29.2	
Lan-intensitate oso urdun familia-eraketan bizi diren pertsonak (%) :												
9.1	10.5	10.8	:	5.6	9.9	:	12.0	6.6	14.3	15.7	17.1	
Transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan dauden pertsonak (%) :												
16.6	16.8	16.6	:	14.8	15.4	:	18.5	20.8	20.8	20.4	22.2	
Gabezia material larriak dituen biztanleria (%) :												
8.5	9.9	9.6	:	2.7	5.8	:	5.2	3.6	5.8	6.2	7.1	

(1) EB-27, 2008an

Iturria: Eustat, Egiturazko adierazleak Europa 2020

## EKONOMIAREN ERRENTA ETA GASTUA

- Ekonomia batean, orokorrean hartuta, errenta eta gastua berdinak izan behar dira zergati hauengatik:
  - Edozein transakziok eroslea eta saltzailea dauzkalako.
  - Erosle batek gastatutako edozein euro saltzaile batentzako euro baten diru-sarrera delako.

## BARNE PRODUKTU GORDINAREN NEURRIA

- *Barne Produktu Gordina (BPG)* ekonomia baten errenta eta gastuaren neurria da.
- Herrialde baten barnean, denbora tartea zehatz batean, ekoiztutako azken ondasun eta zerbitzu guztien merkatu-balioa da.

## BPG

- “... ONDASUN ETA ZERBITZUAK ...”
- “... EKOIZTUTAKO ...”

### Euskal AEko barne produktu gordina, osagaien arabera. Eskaria eta eskaintza. Uneko prezioak (milaka euro). 2010-2014(a)


	2010	2011	2012	2013	2014(a)
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	433.380	444.882	516.650	517.224	468.466
Industria eta energia	15.176.864	15.403.426	14.733.931	14.335.805	14.362.435
<b>ERAIKUNTZA</b>	5.290.411	4.796.755	4.250.575	3.911.261	3.767.610
<b>ZERBITZUAK</b>	40.404.171	41.323.161	41.374.782	41.139.645	41.797.166
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	11.989.545	12.275.537	12.273.812	12.258.938	12.506.210
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	9.999.551	10.086.718	9.830.601	10.042.370	10.257.130
Gainerako zerbitzuak	18.415.075	18.960.906	19.270.369	18.838.337	19.033.826
<b>OINARRIZKO PREZIOEI ERANTSITAKO BALIO GORDINA</b>	61.304.826	61.968.224	60.875.938	59.903.935	60.395.677
<b>PRODUKTUEN GANEKO ZERGA GARBIAK</b>	6.290.737	6.073.516	5.900.032	6.002.441	6.534.865
<b>BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan</b>	<b>67.595.563</b>	<b>68.041.740</b>	<b>66.775.970</b>	<b>65.906.376</b>	<b>66.930.542</b>

- (a) Aurrerapena *Iturria: EUSTAT.*
- *Kontu Ekonomikoak*

## BARNE PRODUKTU GORDINAREN NEURRIA

- Errenta eta gastuaren berdintasuna errentaren fluxu-zirkularraren diagramaren bidez islatu ahal da:

### Fluxu Zirkularra



Copyright © 2004, South-Western

## Eragile ekonomikoak merkatu ekonomian

- Merkatu ekonomia hutsean eragile guztiak **pribatuak** dira
- Etxeko ekonomiak (gu geu guztiok) produkzio **faktoreen jabeak** dira
- Etxeko ekonomiek **kontsumitu** eta **aurrezten** dute
- Haietako batzuk **inbertitzen** dute eta **enpresak** sortu
- Enpresek **ekoizten** dute. **Ekoizpenaren jabeak** dira eta etxeko ekonomiei **saltzen** diete

## Fluxu Zirkularren Diagrama

- Enpresak
  - Ondasun eta Zerbitzuak ekoiztu eta saltzen dituzte
  - Produkzio-faktoreak kontratatu eta erabiltzen dituzte
- Etxeko Ekonomiak
  - Ondasun eta zerbitzuak erosi eta kontsumitzen dituzte
  - Produkzio-faktoreen jabeak dira eta saltzen dituzte

## Fluxu Zirkularraren Diagrama

- Ondasun eta Zerbitzuen merkatuak
  - Enpresek saldu
  - Etxeko-ekonomiek erosi
- Produkzio-faktoreen merkatuak
  - Etxeko-ekonomiek saldu
  - Enpresek erosi

## BARNE PRODUKTU GORDINAREN NEURRIA

- BPG herrialde baten barnean, denbora tarte zehatz batean, ekoiztutako azken ondasun eta zerbitzu guztien merkatu-balioa da.



## BARNE PRODUKTU GORDINAREN NEURRIA

- “. . . Herrialde baten barnean . . .”
  - Herrialde baten muga geografikoen barneko ekoizpenaren balioa neurtzen du.

## BARNE PRODUKTU GORDINAREN NEURRIA

- “. . . Denbora tarte zehatz batean..”
  - Denbora tarte zehatz batean gauzatutako ekoizpenaren balioa neurtzen du, ohikoena urtea da edo, bestela, hiruhilekoa.

## BPGren OSAGAIAK

- BPGak ekonomian ekoiztutako eta merkatuetan *legalki* saldutako guztia barneratzen du.

## BPGren OSAGAIAK

- Zer ez da zenbatzen BPGean?
  - BPGak ez ditu zenbatzen etxean ekoiztutako eta kontsumitutako gauzak, merkaturatzen ez direnak.
  - Ez ditu zenbatzen modu ilegalean ekoiztutako eta saldutako gauzak, droga ilegalak kasu.

## BPGren OSAGAIAK

- BPG ( $Y$ ) hauen batura da:
  - Kontsumoa ( $C$ )
  - Inbertsioa ( $I$ )
  - Gobernuen gastuak ( $G$ )
  - Esportazio garbiak ( $NX$ )

$$Y = C + I + G + NX$$

## BPGren OSAGAIAK

- *Kontsumoa* ( $C$ ):
  - Familien gastua ondasun eta zerbitzuetan, salbu eta etxebizitza berrien erosketak.
- *Inbertsioa* ( $I$ ):
  - Kapital ekipamenduan, izakinak eta egituretan egindako gastua, etxebizitza berriak barne.

## BPGren OSAGAIAK

- *Gobernuen gastua (G)*:
  - Udalek, Diputazioek, gobernu autonomikoek eta gobernu zentralak egindako gastua ondasun eta zerbitzuetan.
- *Esportazio garbiak (X)*:
  - Esportazioak - Inportazioak.

## BPG ERREALA VERSUS NOMINALA

- *BPG nominalak* ondasun eta zerbitzuen ekoizpena urtez-urteko prezioetan (prezio korranteetan) neurtzen du
- *BPG errealak* ondasun eta zerbitzuen ekoizpena prezio konstanteetan neurtzen du.

## BPG ERREALA VERSUS NOMINALA

PRECIOS Y CANTIDADES				
AÑO	X ONDASUNA		Y ONDASUNA	
	PRECIO	CANTIDAD	PRECIO	CANTIDAD
2008	1 \$	100	2 \$	50
2009	2 \$	150	3 \$	100
2010	3 \$	200	4 \$	150

## BPG ERREALA VERSUS NOMINALA

### 1. Kalkulatu BPG nominala

	P*Q	P*Q	GUZTIRA (\$)
2008	100	100	<b>200</b>
2009	300	300	<b>600</b>
2010	600	600	<b>1200</b>

## BPG ERREALA VERSUS NOMINALA

1. Kalkulatu BPG ERREALA (Oinarrizko urtea: 2008)

	P*Q	P*Q	GUZTIRA (\$)
2008	100	100	<b>200</b>
2009	150	200	<b>350</b>
2010	200	300	<b>500</b>

## BPG ERREALA VERSUS NOMINALA

- Ekonomiaren azterketa zehatzean ezinbestekoa da BPG nominala erreal bihurtzea, BPGren deflaktorea erabiliz.

- BPGren deflaktorea honela kalkulatzen da:

$$\text{BPGren deflaktorea} = \frac{\text{BPG nominala}}{\text{BPG erreala}} \times 100$$

## BPG ERREALA VERSUS NOMINALA

### 1. Kalkulatu Deflaktorea

	BPG NOMINALA	BPG ERREALA	DEFLAKTOREA
2008	200	200	100
2009	600	350	171
2010	1200	500	240

## BPG ETA ONGIZATE EKONOMIKOA

- BPG gizarte baten ongizatea neurtzeko adierazle indibidualik onena da
- BPG per capita izenekoak zera esaten digu:
  - zein den ekonomia bateko batezbesteko pertsonaren dirusarrera eta gastua.

## BPG ETA ONGIZATE EKONOMIKOA

- BPG per capita handiagoak bizimaila hobea adierazten du.
- Hala ere, BPG ez da bizimaila edo zoriontasuna neurtzeko tresna perfektua.



## BPG ETA ONGIZATE EKONOMIKOA

- Ongizatean oso garrantzitsuak diren gauza batzuk ez dira BPGean sartzen.
  - Aisialdiaren balioa
  - Ingurugiro garbiaren balioa
  - Merkatuetatik kanpo gauzatzen diren jarduera gehienen balioa, hala nola, gurasoek umeak zaintzen emandako denbora edo borondatezko lana.